

[Sartu](#)Hasiera / **Bizigiro**

ATZEKOZ AURRERA

Kopak eman du zeresana

Donostiako 35. Sagardo Eguna ospatu dute, bi urteko etenaren ostean. Milaka herritar elkartu dira, eta kopan dastatu dute sagardoa. Iritzi kontrajarriak sortu ditu koparen auziak.





Hernaniko (Gipuzkoa) Zelaia sagardotegiko bi langile sagardoa kopan zerbitzatzen, atzo, Donostian. 📷 JON URBE / FOKU

Urtzi Urkizu

2022ko irailak 4

Topa egin dute milaka lagunek kopa eskuan altxatuz, Konstituzio plazan. Baina 35 urtean lehen aldia zen Sagardo Egunean edaria kopan ateratzen zutela, eta erabakia ez da denen gustukoa izan. «Koparena iskanbila sortzen ari da; gehienek esaten dute nahiago dutela ohiko edalontzia», azaldu du Calonge sagardotegiko (Igeldo, Donostia) Nerea Arrillagak. Aitor Mendiluzeren bertso baten amaieran, ordea, hala entzun da: «...niri gehiago inporta zait/ barruan dagoena».

35. Donostiako Sagardo Eguna, Konstituzio plazan. Topa egin dute, koparekin. [@berria pic.twitter.com/DK0Udv1S7y](https://pic.twitter.com/DK0Udv1S7y) – Urtzi Urkizu (@urtziurkizu) [September 3, 2022](#)

Iritziak askotarikoak dira. Kontxi Arrieta donostiarrak, esaterako, nahiago du kopa. «Normalean, kopan eskatzen dut tabernetan, eta gustuko dut. Baina batzuk haserre daude».

Haserre baino gehiago, suminduta agertu dira adineko sagardozale batzuk kopak erosteko mahaian. Kopak saltzen –hamar trago zazpi euroan– ari den gazte batek azaldu duenez, han jarri dira herritar batzuk 10-15 minutuz «politika gora eta behera» eta zenbait politikari konkretu erabakiaren «erruduntzat» jotzen. Bat baino gehiago izan da Sagardo Egunean edalontzia erosi ohi duena, baina handik edan gabe joan dena.

Sagardogileek ere sumatu dute batzuen kexua. «Batzuk hasi dira esaten edalontzia hobe dela kopa baino», esan du Zestoako (Gipuzkoa) Ekain sagardotegiko Aitor Eizmendik. Lehen urtea du sagardoa ateratzen Konstituzio plazan, eta elkargune garrantzitsutzat jo du Gipuzkoako hiriburukoa: «Erakusleiho handia da hau sagardoarentzat».

Sagardogileren batek aitortu du nahiago duela ohiko edalontzia, baina ez du izenik eman nahi izan. Gehienek berrikuntza gisa jo dute koparen hautua, ur edo kopa handitan sartu gabe.

Ez dago jakiterik beste toki batzuetako sagardo egunetan koparen ohitura errotuko den ala ez. Rufino Furundarenak Oñatin (Gipuzkoa) antolatu ohi du Sagardo Eguna urriko lehen larunbatean, eta Donostian sagardogileekin egoteko aukera baliatzen du. «Gu edalontzira ohituta gaude, baina zenbaitek diote kopa hobe dela aromak sentitzeko».

Formatuaren eztabaida albo batera utzita, herritar gehienek pozez ospatu dute iraileko lehen larunbatez Donostiako 35. Sagardo Eguna, bi urteko etenaren ostean.

Realzaleak eta turistak

Sagardogileen artean, badira Konstituzio plazan lehen aldia dutenak; Eizmendi, adibidez. Baina badira plazan beteranoak, Sagardo Egunean urte asko daramatzatenak; Zabala sagardotegiko (Aduna, Gipuzkoa) Teo Irazabal, kasurako. «Euskal giroa sortzen da, eta

kanpoko jendea ere badabil. Polita da, eta Donostiarako ondo dago». Iritzi berekoa da Joxe Mari Alberro, Hernaniko (Gipuzkoa) Alberro sagardotegikoa: «Botila onak ekartzen ditugu, gainera. Beti saiatzen gara horretan».

Sagardoa dastatzen ari direnen artean, denetarik dago. Aita bat dantzan ari da, ume txikia gainean duela, eta ama sakelakoarekin argazkiak ateratzen, beste eskuan kopa duela.

Antolatzaileen argazki ofiziala: pic.twitter.com/bncGH8d3RK – Urtzi Urkizu (@urtziurkizu) [September 3, 2022](#)

Kopa bete eta bete ari dira Goierri eskualdeko (Gipuzkoa) bi lagun, Realaren elastikoarekin. Zalantza dute Anoetako arratsaldeko partidara iritsiko ote diren, baina batez ere nola iritsiko diren. Parranda gogoz dago Iker Altolagirre donostiar eta realzalea ere. «Urteetan aitarekin etorri izan naiz Sagardo Egunera, baina aurten kuadrillarekin, Realaren partidaren aurretik». Igandean Kontxako Bandera izaki, hurrengo egunean ere parrandan jarraitzea espero du. «Bi urteko etenaren ostean, horrelako giroa ikustea ederra da», gaineratu du.

Donostian egun batzuetarako iritsiak diren atzerritar zenbait ere kopa eskuan hartuta dabilta. Bad Worishofen hiriko bi gizonak eta emakume batek nabarmendu dute Bavariakoak direla, eta ez Alemaniakoak. Plazako izkina batean, berriz, Taiwango bi andre daude: Jean Tsang eta Yu-Ra Liu. Bata biltzar baterako iritsi da Donostiara, eta bestea oporretan da. Batak «zoragarritzat» jo du ekitaldia. Besteak «ezin hobea» dela gaineratu du. Sagardoa oso gogoko dute, eta irribarrez adierazi dute gustatuko litzaiekeela Donostiako Sagardo Egunera noizbait itzultzea.

Itzultzen diren hurrengoan, ezin jakin sagardoa kopan edango ote duten ala ez. Uzta nolakoa izango den ere ez. Baina datorren urtean itzuliz gero, Sagardo Routeko antolatzaileek iragarri dute 2022ko uzta iazkoa baino txikiagoa izango dela. Udako lehortek ez dio mesederik egin uztari. Zabala sagardotegiko Irazabalek ere hala uste du: «Datorrena ez da iazkoa bezalakoa izango». Sagardo Routeren datuen arabera, iazkoarekin alderatuta %30 inguruan gera liteke aurtengo uzta. Baina zehatzago emango dute datua aurrerago.

Hainbat erakundetako eta udaletako ordezkariak ere elkartu dira Konstituzio plazan, topa egiteko. Aurtengo uztarekin egindako lehen muztioa dastatu dute. Eta 2019tik 65 urte bete dituzten bazkideak omendu dituzte.

Irakurle agurgarria:

Honaino iritsi zarenez, eskaera bat egin nahi dizugu: irakurtzen ari zaren edukia eta egunkaria babestea, konpromiso ekonomikoa hartuz. Publizitatea eta erakundeen diru-laguntzak ez dira nahikoa BERRIAren etorkizuna bermatzeko. Sarean eskaintzen dizugun edukia irakurtzen duzuen milaka irakurleek proiektuari ekarpena eginda, urrutira iritsiko ginateke.

Kazetaritza libre, ireki eta independentea egin nahi dugu euskaldunontzat. Euskaraz informatzea delako gure eginkizuna, eta zure eskubidea. Lagun gaitzazu bide horretan. Idatzi gurekin etorkizuna. Geroa zukan.

Martxelo Otamendi

BERRIAko zuzendaria

Izan zaitez BERRIAlaguna

Gaiak

Jaiak

Ohiturak eta tradizioak

Arteak eta kultura

Bizimoduak

Gipuzkoa

Euskal Herria



Gehien irakurriak

1 **«Ikurrina hartu izan banu, ez nintzateke Europako txapelduna izango»**
JULEN OTAEGI LEONET

2 **Miren Larrion: «Ez naiz ezkutatuko, eta ez naiz geratuko burua altxatu gabe»**
PAULO OSTOLAZA

3 **Irakasleek berriz ere aukera edukiko dute eszedentziak noiz amaitu aukeratzeko**
IRATI URDALLETA LETE

4 **Statkraft, Iberdrola eta eolikoen premia**
IÑAKI PETXARROMAN

5

Gaztelaniazko ikus-entzunezkoak dira nagusi Uemako herrietako ikasleen artean

JULEN APERRIBAI



Berria.eus - Euskal Editorea SM

Telefonoa: 943-30 40 30

Faxa: 943-59 01 72

Webgunea: webgunea@berria.eus

Publizitatea: publi@bidera.eus

Harpidetza: harpidetza@berria.eus

JARRAITU

 Facebook

 Google

LEGEA

Lege Informazioa

Pribatutasun politika

-  Twitter
-  Instagram
-  Youtube
-  RSS

- Cookieak
- Lizentzia
- Publizitatea
- Bidera zerbitzuak
- MIDAS Media



emakumeen eta gizonen
berdintasunerako
lankidetzaren erakundea



berria
taldea

berria

bidera
zerbitzuak

HITZA

Mauka

BADOK

